
gazte
segurtasun integrala
eta autoprotekzioa

puzkoako gazteen ahotsa. Gipuzkoako gazte
otsa. Gipuzkoako gazteen ahotsa. Gipuzkoa
zteen ahotsa. Gipuzkoako gazteen ahots
puzkoako gazteen ahotsa. Gipuzkoako gazte
otsa. Gipuzkoako gazteen ahotsa. Gipuzkoa
zteen ahotsa. Gipuzkoako gazteen ahots
puzkoako gazteen ahotsa. Gipuzkoako gazte
otsa. Gipuzkoako gazteen ahotsa. Gipuzkoa
zteen ahotsa. Gipuzkoako gazteen ahots
puzkoako gazteen ahotsa. Gipuzkoako gazte
otsa. Gipuzkoako gazteen ahotsa. Gipuzkoa
zteen ahotsa. Gipuzkoako gazteen ahots



Gipuzkoako gazteen ahotsa

gazteaki

Gazteen ideiak partekatu, eztabaidatu eta gizartearen eraldaketan eragiteko sortutako topagune digital eta fisikoa da ekimen hau. Helburua da gazteek egungo erronkei buruz hausnartzeko, iritziak kontrastatzeko eta elkarrekin proposamen sendoak eraikitzeko espazio segurua eta erakargarria eskaintzea.

Plataforma honek aukera ematen die parte-hartzaileei gizarteko dilema nagusiei aurre egiteko, ikuspegi anitzak ezagutuz eta eztabaida aberasgarriak sustatuz.

Prozesu deliberatiboen bidez (Aktibazio foroa), gazteek euren ideiei forma ematen diete eta gizartean benetako eragina izan dezaketen proposamen eta proiektu zehatzak - aktuak - sortzen dituzte. Gainera, espazio honek komunitatea indartzen du, belaunaldi gazteari ahotsa eta erabakimena emanez. Horrela, gazteak eraldaketaren protagonista bihurtzen dira, etorkizun inklusiboago eta bidezkoago baterantz aurrera eginez.

Esta iniciativa es un espacio digital y físico creado para compartir las ideas de los jóvenes, debatirlas y actuar en la transformación de la sociedad. El objetivo es ofrecer un espacio seguro y atractivo para que los jóvenes reflexionen sobre los retos actuales, contrasten opiniones y construyan juntos propuestas sólidas.

Esta plataforma da la oportunidad a los participantes de enfrentar los principales dilemas de la sociedad, conociendo múltiples perspectivas y fomentando debates enriquecedores.

A través de procesos deliberativos (Aktibazio foroa), los jóvenes dan forma a sus ideas y crean propuestas y proyectos concretos - actos - que pueden tener un impacto real en la sociedad. Además, este espacio fortalece la comunidad, dando voz y capacidad de decisión a la generación joven. De este modo, los jóvenes se convierten en protagonistas de la transformación, avanzando hacia un futuro más inclusivo y justo.

03 Gazteakt

06 Dilema: Segurtasun integrala eta autoprotekzioa

09 → 1. Babesaren eta ongizate kolektiborako arriskuen pertzepzio orokorra

10 Zure ingurunean babestuta sentitzea pentsatzen duzunean, zer da zuretzat garrantzitsuena?
11 Zein neurritan sentitzen duzu zure auzoan edo udalerrian pertsonen arteko elkarrekiko laguntza dagoela?
12 Oraina eta etorkizuna kontuan hartuta, zein arlotan ikusten dituzu ongizate kolektiborako erronka edo mehatxu handienak?
13 Zein egoera edo testuingurutan sentitzen zara zaurgarrien edo ez-seguruen?
14 Zein ezaugarrik eragiten dute leku bat ez-segurutzat hartzea?
15 Erabiltzen dituzun espazio publikoetan, zenbateko maiztasunez sentitu zara ez-seguru edo deseroso?
16 Nola baloratzen duzu zure ingurune hurbileko bizikidetza? 1 oso txarra da eta 5 oso ona.
17 Zer eginkizun izan dezake komunitateak babes eta zaintza kolektiboan?

18 → 2. Esperientzia digitala arriskuak eta zaintza

19 Zenbat ordu ematen dituzu egunean mugikorra edo sare sozialak erabiltzen, ikasketetatik edo lanetik kanpo?
20 1etik 10era, zein neurritan sentitzen zara eroso sare sozialetan edo Interneten? 1 batere ez seguru eta 10 oso seguru.
21 Zein egoerek sortzen dizute segurtasun eza handiena ingurune digitalean?
22 Zer egiteari utzi diozu sare sozialetan edo Interneten, deseroso edo ez-seguru sentitzeagatik?

23 → 3. Gaitasunak laguntza eta prebentzio komunitarioa

24 Segurtasun ezeko edo ondoezeko egoera batean laguntza beharko bazenu, zer esango zenuke?
25 Zein bideren bidez ezagutzen dituzu baliabide edo laguntza horiek?

26 Titularrak

30 Aktibazio foroa

34 Aktibistak

Gazteakt 03

El dilema: Seguridad y autoprotección 06

→ 1. Percepción general sobre protección y riesgos para el bienestar colectivo 09

Cuando piensas en sentirte protegido/a en tu entorno, ¿qué es lo más importante para ti? 10
¿En qué medida sientes que en tu barrio o municipio existe apoyo mutuo entre las personas? 11
Pensando en el presente y el futuro, ¿en qué ámbitos percibes mayores retos o amenazas para el bienestar colectivo? 12
¿En qué situaciones o contextos te sientes más vulnerable o inseguro/a? 13
¿Qué características de un lugar hacen que te resulte inseguro? 14
En los espacios públicos que frecuentas, ¿con qué frecuencia te has sentido inseguro/a o incómodo/a? 15
¿Cómo valoras la convivencia en tu entorno más cercano? De 1, muy mala, a 5, muy buena. 16
¿Qué papel crees que puede tener la comunidad en la protección y el cuidado colectivo? 17

→ 2. Experiencia digital riesgos y cuidado 18

¿Cuántas horas al día usas el móvil o las redes sociales fuera de los estudios o del trabajo? 19
Del 1 al 10, ¿cómo de cómodo/a te sientes en redes sociales o Internet? 1 nada seguro/a y 10 muy seguro/a. 20
¿Qué situaciones te generan más inseguridad en el entorno digital? 21
¿Qué has dejado de hacer en redes sociales o Internet por no sentirte cómodo/a o seguro/a? 22

→ 3. Capacidades apoyo y prevención comunitaria 23

En caso de necesitar ayuda por una situación de inseguridad o malestar, ¿dirías que...? 24
¿A través de qué vías conoces esos recursos o apoyos? 25

Titulares 26

Aktibazio foroa 30

Aktibistak 34

# Segurtasun integrala eta autoprotekzioa

**Nola eraiki gazteak babestuta sentituko diren eta konfiantzaz parte hartu ahal izango duten inguruneak?**

GAZTEAKTen hirugarren dilemak ikuspegi zabal batetik lantzen du segurtasuna, eguneroko ongizatearekin, bizikidetzarekin eta zaintza kolektiboarekin lotuta. Babestuta sentitzeak esan nahi du espazio publikoetan egon, harremanak izan eta ingurune digitalak lasaitasunez erabili ahal izatea, baita zailtasunen aurrean laguntza izatea ere.

Txosten honek inkestaren erantzunak biltzen ditu, babeserako zer jotzen den garrantzitsutzat, segurtasun eza zein egoeratan agertzen den eta laguntza eskatzeko zer baliabide ezagutzen diren aztertzeko. Emaitzek berdintasuna eta errespetua lehen planoan kokatzen dituzte, gaueko segurtasun ezaren garrantzia erakusten dute eta eskuragarri dauden laguntzak nola erabili jakiteko zailtasunak agerian uzten dituzte.

Azterketak dilemaren hiru blokeak jarraitzen ditu: babesaren eta ongizate kolektiborako arriskuen pertzepzio orokorra; esperientzia digitala, arriskuak eta zaintza; eta gaitasunak, laguntza eta prebentzio komunitarioa. Helburua da eztabaidarako eta proposamenak lantzeko oinarri bat eskaintzea, erantzun dutenen esperientzietatik abiatuta.

# Seguridad y autoprotección

**¿Cómo construir entornos donde la juventud se sienta protegida y pueda participar con confianza?**

El tercer dilema de GAZTEAKT aborda la seguridad desde una perspectiva amplia, vinculada al bienestar cotidiano, la convivencia y el cuidado colectivo. Sentirse protegido implica poder habitar los espacios públicos, relacionarse y utilizar los entornos digitales con tranquilidad, así como disponer de apoyos cuando surge una dificultad.

Este informe recoge las respuestas de la encuesta para conocer qué se considera importante para la protección, en qué situaciones aparece la inseguridad y qué recursos se conocen para pedir ayuda. Los resultados sitúan la igualdad y el respeto en primer plano, muestran la relevancia de la inseguridad nocturna y señalan dificultades para saber cómo utilizar los apoyos disponibles.

El análisis sigue los tres bloques del dilema: percepción general sobre protección y riesgos para el bienestar colectivo; experiencia digital, riesgos y cuidado; y capacidades, apoyo y prevención comunitaria. Su finalidad es aportar una base para la deliberación y la formulación de propuestas, a partir de las experiencias de quienes han respondido.

FITXA TEKNIKOA

Informazioa biltzea online inkesta baten bidez gauzatu da, gailu anitzetan erabil daitekeen atari batean kokatuta, eta aldez aurretik prozesuaren, azterketaren helburuaren eta datu pertsonalen babesarekin lotutako eskubideen berri emanez.

Erabilitako laginketa ez-probabilistikoa izan da, eta laginketa intentzionala uztartu da galdetegia hainbat espazio digitaletan (webguneak, hezkuntza zentroak, sare sozialak eta gazte kanalak) zabaltzearen bidez, Gipuzkoako gazteen artean ahalik eta lagin anitzena lortzeko helburuarekin. Horrez gain, kate-laginketa edo "elur-bola" eredua ere erabili da, parte-hartzaileen arteko gomendioen bidez galdetegia hedatzea erraztuz.

Inkestak 2.000 pertsona baino gehiagoren parte-hartzea izan du gaur arte eta 1.141 erantzun hartu ditugu lagin bezala. Osatutako galdetegien eta erregistratutako erantzunen kopurua aldatu egiten da item bakoitzaren arabera, galdera bakoitzean parte-hartzaileek emandako erantzun eraginkorrak soilik zenbatu baitira. Ehunekoak zenbaki oso hurbilenera biribildu dira, datuen irakurketa eta interpretazioa errazteko.
Parte-hartzaileen artean Gipuzkoako eskualde guztietako ordezkaritza dago, Donostialdearen, Bidasoaren eta Tolosaldearen presentzia handiagoarekin, nahiz eta eskualde guztietatik jaso diren erantzunak. Emakumeak dira nagusi (%58), baita 18 eta 30 urte bitarteko gazteen parte-hartzea ere, 26 eta 30 urte bitarteko adin-tarteak pisu zertxobait handiagoa duelarik.

Prestakuntza profilaren ikuspegitik, parte-hartzaile gehienek Lanbide Heziketako, unibertsitateko edo graduondoko ikasketak dituzte. Lan-egoerari dagokionez, %5 soilik dago langabezian, eta gainerakoek ikasketak, lana edo biak konbinatzen dituzte. Egoera ekonomikoaren pertzepzioari dagokionez, erantzun gehienak (55%) tarteko balorazio batean kokatzen dira, 1etik 10erako eskalan 5 eta 7 artean.

Informazioaren bilketa 2026ko maiatzaren eta irailaren birarteko epean gauzatu da.

FICHA TÉCNICA

La recogida de información se ha llevado a cabo a través de la realización de una encuesta on-line alojada en un portal multidispositivo, informando previamente del proceso, el objetivo del estudio y los derechos vinculados a la protección de datos personales.

El muestreo aplicado ha sido de carácter no probabilístico, combinando un muestreo intencional mediante la difusión del cuestionario en diferentes espacios digitales (webs, centros educativos, redes sociales y canales juveniles), con el objetivo de alcanzar una muestra lo más diversa posible dentro de la población joven de Gipuzkoa, y un muestreo en cadena o "bola de nieve", favoreciendo la difusión del cuestionario entre iguales a partir de la recomendación entre participantes.

La encuesta ha contado con la participación de más de 2.000 personas hasta el momento, habiendo cogido una muestra de 1.141. El número de cuestionarios completados y de respuestas registradas varía según cada ítem del cuestionario, ya que se han contabilizado únicamente las respuestas efectivamente emitidas por las personas participantes en cada pregunta. Los porcentajes se presentan redondeados al número entero más cercano para facilitar la lectura e interpretación de los datos.

Entre las personas participantes se aprecia representación de todas las comarcas de Gipuzkoa, con una mayor presencia de Donostialdea, Bidasoa y Tolosaldea, aunque se han registrado respuestas en todas las comarcas. Predominan las mujeres (58%) y la participación de población joven entre los 18 y 30 años, con un peso ligeramente superior del tramo de edad comprendido entre los 26 y 30 años.

En cuanto al perfil formativo, la mayoría de las personas participantes cuenta con estudios de Formación Profesional o universitarios y posgrados. Respecto a la situación laboral, únicamente un 5% se encuentra en desempleo, mientras que el resto combina situaciones de estudio, trabajo o ambas simultáneamente. En relación con la percepción de la situación económica, la mayoría de las respuestas (55%) se sitúan en una valoración media, entre 5 y 7 en una escala del 1 al 10.

La recogida de información se ha llevado a cabo durante el periodo comprendido entre mayo y septiembre de 2026.

1

# Babesaren eta ongizate kolektiborako arriskuen pertzepzio orokorra

Bloke honek babestuta sentitzearekin lotutako elementuak, erronka kolektiboak eta ingurune hurbileko segurtasun ezaren esperientziak biltzen ditu. Bizikidetza eta komunitateari aitortzen zaion eginkizuna ere aztertzen ditu. Galderek espazioak eta harremanak zaintzeko lehentasunak identifikatzeko aukera ematen dute.

# Percepción general sobre protección y riesgos para el bienestar colectivo

Este bloque recoge los elementos que se asocian a sentirse protegido, los retos colectivos y las experiencias de inseguridad en el entorno cercano. También analiza la convivencia y el papel atribuido a la comunidad. Las preguntas permiten identificar prioridades para el cuidado de los espacios y de las relaciones.

GAZTEAKT

Babesaren eta ongizate kolektiborako arriskuen pertzepzio orokorra

# Zure ingurunean babestuta sentitzea pentsatzen duzunean, zer da zuretzat garrantzitsuena?

Babes-sentsazioa indartzen duten alderdiak ezagutzeko, parte-hartzaileei galdetu zitzaien zer jotzen duten garrantzitsuentzat beren ingurunean babestuta sentitzeko. Erantzunek pertsonen arteko harremanek, espazio publikoen baldintzek eta zerbitzuak zein laguntzak eskuratzeko aukerek duten pisua identifikatzeko aukera ematen dute.

Pertsonen arteko berdintasuna eta errespetua dira gehien aipatutako lehentasuna (%67,60). Ondoren datoz ondo zaindutako espazio publikoak (%52,18) eta zerbitzu publiko eskuragarriak (%49,91). Laguntza-sareek (%39,11) eta arriskuen aurreko informazioak (%24,59) harremanak, ingurunea eta baliabideak uztartzen dituen babesaren ideia osatzen dute.

Testu irekietan, kalean segurtasuna izateko, lapurretak eta erasoak prebenitzeko, polizia-presentzia izateko eta erakundeen erantzuna jasotzeko eskaerak agertzen dira. Mugitzeko askatasunari eta epaitua izan gabe laguntza jasotzeari buruzko aipamenak ere badaude. Galdetegiko aukerak zabaltzen dituzten ekarpenak dira, baina ez dute delinkuentzia neurtzen.

Percepción general sobre protección y riesgos para el bienestar colectivo

# Cuando piensas en sentirte protegido/a en tu entorno, ¿qué es lo más importante para ti?

Para conocer qué aspectos contribuyen a la sensación de protección, se preguntó a las personas participantes qué consideran más importante para sentirse protegidas en su entorno. Las respuestas permiten identificar el peso que tienen las relaciones entre personas, las condiciones de los espacios públicos y el acceso a servicios y apoyos.

La igualdad y el respeto entre personas constituyen la prioridad más señalada (67,60%). Les siguen los espacios públicos cuidados (52,18%) y los servicios públicos accesibles (49,91%). Las redes de apoyo (39,11%) y la información ante riesgos (24,59%) completan una idea de protección que combina relaciones, entorno y recursos.

Los textos abiertos incorporan demandas de seguridad en la calle, prevención de robos y agresiones, presencia policial y respuesta institucional. También aparecen referencias a la libertad de movimiento y a recibir ayuda sin ser cuestionado. Son aportaciones que amplían las opciones del cuestionario, sin constituir una medición de la delincuencia.



GAZTEAKT

Babesaren eta ongizate kolektiborako arriskuen pertzepzio orokorra

## Zein neurritan sentitzen duzu zure auzoan edo udalerrian pertsonen arteko elkarrekiko laguntza dagoela?

Erantzunik ohikoena «Pixka bat» da (%40,28). Laguntza gutxi edo batere ez dagoela hautematen dutenak %35,50 dira; nahikoa edo asko dagoela diotenak, berriz, %24,22. Beraz, elkarrekiko laguntza badagoela aitortzen da, baina zati handi batek mugatua dela hautematen du.


Emaitza honek lan-eremu bat proposatzen du deliberazio-prozesurako: auzoko hurbiltasuna behar denean ikusgarri eta erabilgarri izango diren laguntza bihurtzea. Galderak ingurunearen pertzepzioa neurtzen du, ez sareen eskuragarritasun egiaztatua.

Percepción general sobre protección y riesgos para el bienestar colectivo

## ¿En qué medida sientes que en tu barrio o municipio existe apoyo mutuo entre las personas?

La opción más frecuente es «Algo» (40,28%). Quienes perciben poco o ningún apoyo suman el 35,50%, frente al 24,22% que identifica bastante o mucho. Por tanto, el apoyo mutuo se reconoce, pero una parte considerable lo percibe de forma limitada.

Este resultado plantea un ámbito de trabajo para el proceso deliberativo: cómo convertir la cercanía vecinal en apoyos que resulten visibles y utilizables cuando se necesitan. La pregunta mide una percepción del entorno, no la disponibilidad comprobada de redes.



GAZTEAKT

Babesaren eta ongizate kolektiborako arriskuen pertzepzio orokorra

## Oraina eta etorkizuna kontuan hartuta, zein arlotan ikusten dituzu ongizate kolektiborako erronka edo mehatxu handienak?

Erradikalizazioa, gorroto-diskurtsoak edo muturreko indarkeria dira gehien aipatutako aukerak (%47,67), bai emakumeen artean (%51,54), bai gizonen artean (%41,97). Ondoren datoz bizikidetza sozial eta demokratikoaren narriadura (%42,13) eta indarkeria matxista (%36,16). Azken horretan dago emakumeen (%48,46) eta gizonen (%13,47) arteko alderik handiena, ehuneko 34,99 puntuko aldearekin. Gizarte-harremanei lotutako erronkak gainerako aukeren gainetik nabarmentzen dira, nahiz eta klima-arriskuak, osasun-arriskuak eta arrisku digitalak ere aipatzen diren.


Testu irekietan delinkuentziari, immigrazioari eta integrazioari buruzko kezkak agertzen dira, baita etxebizitzari, prekaritateari eta desinformazioari buruzkoak ere. Batzuek orokortze diskriminatzaileak edo gorroto-mezuak dituzte; adierazitako iritzi gisa deskribatzen dira, ez gertakari gisa, ezta jatorriaren eta delinkuentziaren arteko loturaren froga gisa ere. Kezka eta diskurtso desberdin horien presentzia garrantzitsua da bizikidetza lantzeko.

Percepción general sobre protección y riesgos para el bienestar colectivo

## Pensando en el presente y el futuro, ¿en qué ámbitos percibes mayores retos o amenazas para el bienestar colectivo?

La radicalización, los discursos de odio o la violencia extrema encabezan las respuestas (47,67%) tanto por las mujeres (51,54%) como por los hombres (41,97%), seguidos del deterioro de la convivencia social y democrática (42,13%) y de la violencia machista (36,16%), aunque en esta es donde hay la mayor diferencia entre mujeres (48,46%) y hombres (13,47), con una distancia de 34,99 puntos porcentuales. Los retos vinculados a las relaciones sociales destacan sobre el resto de opciones, aunque también se señalan riesgos climáticos, sanitarios y digitales.

Entre los textos abiertos aparecen preocupaciones como la llegada de personas migrantes, que es uno de los retos más mencionados, junto con la delincuencia, la vivienda y la precariedad.. Esta coexistencia de preocupaciones y discursos distintos es relevante para trabajar la convivencia.




%48 Erradikalizazioa, gorroto-diskurtsoak edo muturreko indarkeria
%42 Bizikidetza sozial eta demokratikoaren narriadura
%36 Indarkeria matxista
%25 Klima-aldaketa eta muturreko fenomenoak
%25 Indarkeria aisialdi-testuinguruetan
%21 Ingurunearen narriadura
%18 Osasun-krisiak
%17 Mendekotasuna
%15 Arrisku digitalak
%13 Beste erantzun ireki bat
%9 Bide-segurtasuna

*48% Radicalización, discursos de odio o violencia extrema:*
*42% Deterioro de la convivencia social y democrática*
*36% Violencia machista*
*25%Cambio climático y fenómenos extremos*
*25% Violencia en contextos de ocio*
*21% Deterioro del entorno*
*18% Crisis sanitarias*
*17% Adicciones*
*15% Riesgos digitales*
*13% Otra respuesta abierta*
*9% Seguridad vial*

Babesaren eta ongizate kolektiborako arriskuen pertzepzio orokorra

## Zein egoera edo testuingurutan sentitzen zara zaurgarrien edo ez-seguruen?

Gaua da zaurgarritasun-testuingururik aipatuena (%73,56). Ondoren datoz pertsona edo talde jakin batzuen aurrean egotea (%53,94) eta bakarrik egotea (%43,60). Jaiek eta gaueko aisialdiak ere pisu nabarmena dute (%30,67).

Emakumeek maizago adierazten dute gauez zaurgarri sentitzen direla (%82,97, gizonen %56,48ren aldean), baita bakarrik daudenean ere (%54,18, gizonen %24,87ren aldean). Gizonen artean, gehien aipatutako testuingurua pertsona edo talde jakin batzuen aurrean egotea da (%69,95, emakumeen %42,41en aldean), nahiz eta galderak ez duen zehazten nortaz ari diren.

Emakumeek gehiago aipatzen dituzte, halaber, ezagutzen ez dituzten tokiak (%29,41, gizonen %21,24ren aldean); gizonek, berriz, zertxobait gehiago aipatzen dituzte jaiak eta gaueko aisialdia (%35,75, emakumeen %30,65en aldean). Gainera, gizonen %10,88k adierazten du normalean ez dela zaurgarri sentitzen; emakumeen artean, berriz, %2,48k. Oro har, alde horiek erakusten dute gauak eta bakarrik egoteak pisu bereziki handia dutela emakumeen segurtasun ezaren pertzepzioan.

Percepción general sobre protección y riesgos para el bienestar colectivo


## ¿En qué situaciones o contextos te sientes más vulnerable o inseguro/a?

La noche es el contexto de vulnerabilidad más señalado (73,56%). A continuación aparecen la presencia de determinados grupos o personas (53,94%) y estar a solas (43,60%). Las fiestas y el ocio nocturno también tienen un peso relevante (30,67%).

Las mujeres señalan con mayor frecuencia sentirse vulnerables de noche (82,97%, frente al 56,48% de los hombres) y cuando están solas (54,18%, frente al 24,87%). Entre los hombres, el contexto más señalado es la presencia de determinados grupos o personas (69,95%, frente al 42,41% de las mujeres), aunque la pregunta no permite identificar a quiénes se refieren.

Las mujeres también mencionan más las zonas desconocidas (29,41% frente al 21,24%), mientras que los hombres señalan algo más las fiestas y el ocio nocturno (35,75% frente al 30,65%). Además, el 10,88% de los hombres indica que no suele sentirse vulnerable, frente al 2,48% de las mujeres. En conjunto, las diferencias muestran que la noche y la soledad tienen un peso especialmente elevado en la percepción de inseguridad de las mujeres.

Solo el 6,11% selecciona que no suele sentirse vulnerable. La categoría «determinados grupos o personas» no identifica por sí misma ningún colectivo concreto ni acredita conductas de riesgo. Los resultados orientan a explorar las condiciones de los trayectos y espacios nocturnos, así como la posibilidad de pedir apoyo.




%74 Gauez
%54 Pertsona edo talde jakin batzuen aurrean
%44 Bakarrik nagoenean
%31 Jaietan eta gaueko aisialdian
%26 Ezagutzen ez ditudan tokietan
%9 Garraio publikoan
%6 Ez naiz normalean zaurgarri sentitzen
%6 Ingurune digitaletan
%6 Larrialdi klimatiko edo sanitarioetan
%3 Lan-ingurunean
%2 Beste erantzun ireki bat
%1 Autoa hartzean
%1 Etxean

*74% De noche*
*54% En presencia de determinados grupos o personas*
*44% Cuando estoy solo/a*
*31% Fiestas y ocio nocturno*
*26% En zonas que no conozco*
*9% En el transporte público*
*6% No suelo sentirme en situaciones de vulnerabilidad*
*6% Entornos digitales*
*6% En situaciones de emergencia climática o sanitaria*
*3%Entorno laboral*
*2% Otra respuesta abierta*
*1% Al coger el coche*
*1% En el hogar*

Babesaren eta ongizate kolektiborako arriskuen pertzepzio orokorra

## Zein ezaugarrik eragiten dute leku bat ez-segurutzat hartzea?

Borrokak edo jokabide oldarkorrak (%59,73) eta giro desatsegina edo mehatxagarria (%54,40) dira gehien aipatutako ezaugarriak. Gune ilunak %35,94ra iristen dira; jende gutxi dabilen guneak eta zaintza edo laguntza falta, bakoitza %35,07.

Emakumeek gehiago aipatzen dituzte gune ilunak (%45,00 emakumeek / %20,31 gizonek) eta jende gutxi dabilen guneak (%46,56 emakumeek / %18,75 gizonek). Gizonek gehiago aipatzen dituzte giro desatseginak edo mehatxagarriak (%60,94 gizonek / %46,88 emakumeek).

Segurtasun ezaren pertzepzioan, beraz, harremanei lotutako elementuak eta lekuen baldintza fisikoak elkartzen dira. Hobekuntza-proposamenek argiztapena, irisgarritasuna eta laguntza eskuragarri izatea kontuan har ditzakete, jokabide oldarkorren prebentzioarekin batera.

Percepción general sobre protección y riesgos para el bienestar colectivo

## ¿Qué características de un lugar hacen que te resulte inseguro?


Las peleas o comportamientos agresivos (59,73%) y el ambiente hostil o intimidante (54,40%) son las características más señaladas. Las zonas oscuras alcanzan el (35,94%); las zonas poco transitadas y la falta de vigilancia o apoyo, el (35,07%) cada una.

Las mujeres mencionan más las zonas oscuras (45,00% M / 20,31%H) y poco transitadas (46,56% / 18,75%). Los hombres señalan más los ambientes hostiles o intimidantes (60,94% H / 46,88% M).

La percepción de inseguridad reúne, por tanto, elementos relacionales y condiciones físicas de los lugares. Las propuestas de mejora pueden considerar la iluminación, la accesibilidad y la presencia de apoyos junto con la prevención de comportamientos agresivos.

%60 Borrokak edo jokabide oldarkorrak
%54 Giro desatsegina edo mehatxagarria
%36 Gune ilunak
%35 Jende gutxi dabilen guneak
%35 Zaintza edo laguntza falta
%29 Alkoholaren edo beste droga batzuen kontsumoa
%18 Zikinkeria, zaborra edo espazioaren narriadura
Beste erantzun ireki bat
Sarbide- edo mugikortasun-zailtasunak

*60% Peleas o comportamientos agresivos*
*54% Ambiente hostil o intimidante*
*36% Zonas oscuras*
*35% Zonas poco transitadas*
*35% Falta de vigilancia o apoyo*
*29% Consumo de alcohol u otras drogas*
*18% Suciedad, basura o deterioro del espacio*
*4% Otra respuesta abierta*
*3% Dificultades de acceso o movilidad*



GAZTEAKT

Babesaren eta ongizate kolektiborako arriskuen pertzepzio orokorra

## Erabiltzen dituzun espazio publikoetan, zenbateko maiztasunez sentitu zara ez-seguru edo deseroso?

%37,83k adierazten du maiz edo oso maiz sentitu dela ez-seguru edo deseroso. Erantzunik ohikoena «Batzuetan» da (%43,25); «la inoiz ez» eta «Inoiz ez» aukerek, berriz, %18,92 biltzen dute.

Percepción general sobre protección y riesgos para el bienestar colectivo

## En los espacios públicos que frecuentas, ¿con qué frecuencia te has sentido inseguro/a o incómodo/a?

El 37,83% indica haberse sentido inseguro o incómodo frecuentemente o muy frecuentemente. La respuesta más habitual es «A veces» (43,25%), mientras que «Casi nunca» y «Nunca» suman el 18,92%.



GAZTEAKT

Babesaren eta ongizate kolektiborako arriskuen pertzepzio orokorra


## Nola baloratzen duzu zure ingurune hurbileko bizikidetza? 1 oso txarra da eta 5 oso ona.

Bizikidetzak 5etik 3,25eko batez bestekoa jasotzen du. Erdiko balioak, 3ak, erantzunen %41,49 biltzen du; 4 eta 5 puntuazioek, %39,85; eta 1 eta 2 puntuazioek, %18,66. Tarteko balorazioak eta positiboak dira nagusi, nahiz eta talde batek balorazio txarra egiten duen.

Percepción general sobre protección y riesgos para el bienestar colectivo

## ¿Cómo valoras la convivencia en tu entorno más cercano? De 1, muy mala, a 5, muy buena.

La convivencia recibe una media de 3,25 sobre 5. El valor central, 3, concentra el 41,49% de las respuestas; las puntuaciones 4 y 5 suman el 39,85%, y las puntuaciones 1 y 2, el 18,66%. Predominan, por tanto, las posiciones intermedias y positivas, aunque existe un grupo con una valoración desfavorable.



GAZTEAKT

Babesaren eta ongizate kolektiborako arriskuen pertzepzio orokorra

## Zer eginkizun izan dezake komunitateak babes eta zaintza kolektiboan?

Gatazkak prebenitzea (%53,40) eta espazio seguru eta inklusiboak sortzea (%51,18) dira komunitateari gehien aitortzen zaizkion eginkizunak. Egoera zaurgarrian dauden pertsonak detektatu eta laguntzea ere nabarmentzen da (%43,13).

Erantzun irekietan erakundeen eta poliziaren jarduna eskatzen da, elkarteen gaitasunari buruzko zalantzak azaltzen dira eta ardura hori herritarren esku uztearen aurkako iritziak agertzen dira. Auzoko komunikaziorako eta hezkuntzarako proposamenak ere badaude. Aniztasun horrek komunitatearen lankidetza zehaztera gonbidatzen du, zerbitzu publikoen ardurak ordezkatu gabe.

